



ETXEBIZITZA, HERRI LAN
ETA GARRAIO SAILA
Zerbitzu Zuzendaritza
Estatistikarako Organo Berezia

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES
Dirección de Servicios
Órgano Estadístico Específico


Prensa oharra 2011/08/24)

ETXEGINTZARI ETA ETXEBIZITZARI BURUZKO ESTATISTIKA (EDYVI) 2011ko 2.
hiruhilekoa

Oin berriko etxebizitzak eraikitzeko aurreikuspenak behera egin du 2011ko bigarren hiruhilekoan: % 23,2 aurreko hiruhilekoarekin alderatuta eta % 3,7 2010eko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta

Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak egindako Etxegintzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistikaren arabera, 2011ko bigarren hiruhilekoan aurreikusi denez, oin berriko 2.142 etxebizitza eraikiko dira (647 etxebizitza gutxiago), aurreko hiruhilekoan baino % 23,2 gutxiago. 2010eko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta, oin berriko 83 etxebizitza gutxiago dira, % 3,7 gutxiago, alegia.

Obra handiko lizentzien kopuruaren bilakaera, lurralde historikoaren eta hiruhilekoaren arabera.
Euskal Autonomia Erkidegoa. 1998-2011.



Fuente: Dpto. Vivienda, Obras Públicas y Transportes. Estadística de Edificación y Vivienda

Bizkaian daude erkidego autonomo osoan 2011ko bigarren hiruhilekoan eraikitzea aurreikusita dagoen oin berriko etxebizitzak % 51,6, hau da, 1.105



ETXEBIZITZA, HERRI LAN
ETA GARRAIO SAILA
Zerbitzu Zuzendaritza
Estatistikarako Organo Berezia

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES
Dirección de Servicios
Órgano Estadístico Específico

etxebizitza. 2011ko lehen hiruhilekoan baino % 0,8 gehiago eta aurreko urteko hiruhileko berean (2010eko bigarrena) aurreikusitako etxebizitzaren % 106,5 gehiago.

Araba dago hurrena 623 etxebizitzarekin, aurreikusitako oin berriko etxebizitzaren % 29,1arekin, alegia. Lurralde honetan % 41,0 egin du behera lehen hiruhilekoarekin alderatuta eta iazko hiruhileko berarekin alderatuta, etxebizitzak % 21,2 gutxiago dira.

Bestalde, Gipuzkoan oin berriko 414 etxebizitza eraikiko direla aurreikusten da (guztizkoaren % 19,3), aurreko hiruhilekoan baino % 35 gutxiago, eta iazko hiruhileko berean baino % 53,9 gutxiago.

Arabako Lautadan daude Araban aurreikusita dauden oin berriko etxebizitzaren % 96,1; Bilbo Handian Bizkaiko % 54,2 eta Donostialdean Gipuzkoako % 66,9.

Aurreikuspenen arabera, Gasteizen oin berriko 593 etxebizitza eraikiko dira, hau da, Autonomia Erkidego osoko % 27,7 eta Arabako % 95,2; jarraian Leioa dago, 405 etxebizitzarekin —Autonomia Erkidegoko % 18,9—, baita Durango ere, 142 etxebizitzarekin —Erkidegoko % 6,6— eta Donostia 130 etxebizitzarekin —Erkidegoko % 6,1— Euskal Autonomia Erkidegoko 251 udalerrietatik, 63tan —4tik batean— aurreikusten zen etxebizitza berriak eraikiko zirela.

Bestalde, hiruhileko honetan aurreikusitako 187 birgaitzeak 2010eko bigarren hiruhilekoan izandako birgaitzeak baino % 1,1 gehiago izan dira; aldiz, eta hiruhilekoan izandakoak baino % 49,6 gehiago dira.

EAEko udalek 2011ko bigarren hiruhilekoan emandako obra handiko lizentzia kopurua % 4,6 igo da aurreko hiruhilekoarekiko eta %3,6 2010eko aldi berarekin alderatuta.

Udalek onartzen dituzten obra handiko lizentzien kopurua (eraikuntza ez publikoaren sektorearen egoera-adierazle gisa erabili ohi da) 768ra iritsi zen 2011ko bigarren hiruhilekoan. Hau da, aurreko hiruhilekoan baino % 4,6 gehiago eta duela urte bete baino % 3,6 gehiago.

Hamarretik zazpi baino gehiago —% 73,7— birgaitze-lizentziak dira, oin berriko eraikinak % 24,5 dira eta % 1,8 bereziki eraisteko lizentziak dira —guztira 14—.

Bizkaian obra handiko 338 lizentzia daude, Arabako 304 lizentzien eta Gipuzkoako 126 lizentzien gainetik. Azken horren kasuan, oin berriko eraikinak egiteko lizentziak lizentzia guztien % 37,3 dira, eta Bizkaiaren eta Arabaren kasuan, aldiz, % 21,9 eta % 22 dira, hurrenez hurren.



ETXEBIZITZA, HERRI LAN
ETA GARRAIO SAILA
Zerbitzu Zuzendaritza
Estatistikarako Organo Berezia

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES
Dirección de Servicios
Órgano Estadístico Específico

Arabako % 13 egin dute gora obra handiko lizentziek aurreko hiruhilekoarekin alderatuta eta % 18,8 2010eko bigarrenarekin alderatuta. Gipuzkoari dagokionean, aurreko hiruhilekoan baino % 7,7 gehiago izan dira baina iazko hiruhileko berean baino % 3,8 gutxiago. Bizkaian, azkenik, % 2,9 lizentzia gutxiago egon dira aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eta % 4,5 gutxiago azken urtean.

Arabako Lautadan eman dira Arabako lizentzien % 73,4. Ehuneko hori Bilbo Handiak Bizkaiarekiko duen ehunekotik -% 66,6- hurbil dago; aitzitik, Donostialdean Gipuzkoako lizentzia guztien % 42,1 eman dira.

ERAIKUNTZARI ETA ETXEBIZITZARI BURUZKO ESTADISTIKA EAE-N		2011ko 2. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoarekiko aldea		Aurreko urteko hiruhileko berarekiko aldea	
OBRA HANDIETARAKO LIZENTZIAK		Kopurua	%	Kopurua	Aldea (%)	Kopurua	Aldea (%)
EAE	Guztira	768	100,0	34	4,6	27	3,6
	Oin berriko eraikinak	188	24,5	-4	-2,1	3	1,6
	Birgaitzeak	566	73,7	38	7,2	25	4,6
	Eraispenak	14	1,8	0	0,0	-1	-6,7
Araba	Guztira	304	100,0	35	13,0	48	18,8
	Oin berriko eraikinak	67	22,0	3	4,7	6	9,8
	Birgaitzeak	231	76,0	33	16,7	40	20,9
	Eraispenak	6	2,0	-1	-14,3	2	50,0
Bizkaia	Guztira	338	100,0	-10	-2,9	-16	-4,5
	Oin berriko eraikinak	74	21,9	-5	-6,3	-6	-7,5
	Birgaitzeak	261	77,2	-6	-2,2	-10	-3,7
	Eraispenak	3	0,9	1	50,0	0	0,0
Gipuzkoa	Guztira	126	100,0	9	7,7	-5	-3,8
	Oin berriko eraikinak	47	37,3	-2	-4,1	3	6,8
	Birgaitzeak	74	58,7	11	17,5	-5	-6,3
	Eraispenak	5	4,0	0	0,0	-3	-37,5
AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZEN KOPURUA							
EAE	Guztira	2.329	100,0	-585	-20,1	-81	-3,4
	Oin berriko eraikinak	2.142	92,0	-647	-23,2	-83	-3,7
	Birgaitzeak	187	8,0	62	49,6	2	1,1
Araba	Guztira	664	100,0	-424	-39,0	-169	-20,3
	Oin berriko eraikinak	623	93,8	-433	-41,0	-168	-21,2
	Birgaitzeak	41	6,2	9	28,1	-1	-2,4
Bizkaia	Guztira	1.196	100,0	46	4,0	594	98,7
	Oin berriko eraikinak	1.105	92,4	9	0,8	570	106,5
	Birgaitzeak	91	7,6	37	68,5	24	35,8
Gipuzkoa	Guztira	469	100,0	-207	-30,6	-506	-51,9
	Oin berriko eraikinak	414	88,3	-223	-35,0	-485	-53,9
	Birgaitzeak	55	11,7	16	41,0	-21	-27,6

Fuente: Dpto. Vivienda, Obras Públicas y Transportes. Estadística de Edificación y Vivienda



**ETXEBIZITZA, HERRI LAN
ETA GARRAIO SAILA**
Zerbitzu Zuzendaritza
Estatistikarako Organo Berezia

**DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES**
Dirección de Servicios
Órgano Estadístico Específico

Para más información:

Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes. Dirección de Servicios. Órgano Estadístico Específico

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Persona de contacto: Edurne Domingorena

Tlf: +34-945-01 97 12 Fax: +34-945-01 64 07

Notas de prensa en Internet: <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-429/es/>

WEB: <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-429/es/>